



## LH-1. MAILA 3. UNITATE DIDAKTIKOA "Autonomia pertsonala. Berdintasunez ekin"



### LH1-3UD. AUTONOMIA PERTSONALA: IRIZPIDE ETA JARRAIBIDEAK



Esperimentatzea eta ikusaraztea bai neskek bai mutilak, sexua kontuan hartu gabe, bakarka zein taldean, autonomoak izan daitezkeela presentzia edukitzerakoan, mugitzerakoan eta jarduterakoan, betiere, ekintza horiek beste pertsona batzuegan eragin dezaketen ondorioekiko arduratsuak izanik.

KONTZEPTU NAGUSIAK	BEHAKETA - AZTERKETA	ONDORIOAK - IKASKETAK
<p><b>1. Nork bere trebetasunak askatasunez garatzeko aukera.</b> Nork bere berezko trebetasunak ezagutu eta, neska zein mutil, askatasunez trebetasun horiek garatzeko aukera eta baldintza berberak izatea. Autonomia maila berbera lortzeko trebetasunak garatu ahal izatea, gizartearen onarpen eta balio berbera jasoz.</p>	<p><b>1. Indar eta Atseginen trebetasunak.</b> Ipuineko pertsonaien trebetasunak jaso dituzte? Zeintzuk? Zeintzuk ez? Ipuinean dituzten trebetasunak jaso dituzte ala gure gizartean sexuarekin lotzen direnak? Eta beraiek garatu dituzten trebetasunak idazterakoan? Nork bereak jaso ditu ala genero ereduokak?</p>	<p>→ <b>Bakoitzak autonomia izateko trebetasunak gara ditzake.</b> Autonomia izateko ikasketak eta jarduerak egin eta gara ditzake.</p> <p>→ <b>Bizitzaren esparru guztietan autonomia pertsonala.</b> Neska zein mutil arlo guztietan autonomia eta arduratsua izan.</p> <p>→ <b>Ahal izateko autonomia.</b> Pentsatzeko eta proposatzeko autonomia. Erabakiak hartzeko, antolatzeko eta egiteko autonomia. Ahalduzko autonomia.</p>
<p><b>2. Autonomia pertsonala garatzeko jarduera eta ikasketa guztiei balio bera eman.</b> Nesken zein mutilen, edonoren autonomiako trebetasunei balio bera eman. Norberaren edo/eta taldearen autonomiarako baliotsuak diren jarduera eta ikasketak, trebetasunak eta portaerak, identifikatu eta aitortu.</p>	<p><b>2. Autonomiarako trebetasunak garatu.</b> Ondo identifikatu dituzte zelaia parkea bilakatzeko trebetasunak eta jarduerak? Ulertu dute lortutakoa pertsona askoren ekarpen anitzen ondorioa dela? Konturatu dira parkeak guztion gustuak eta beharrak bete ditzan, guztion ideiak eta ekarpenak onartu direla?</p>	<p>→ <b>Autonomia pertsonal baliotsua.</b> Norberaren autonomia eta beste guztiona. Eginez ingurua aldatzeko, hobeto bizitzeko, nahi dugun moduan bizitzeko.</p>
<p><b>3. Neskak zein mutilak bizitzaren arlo guztietan autonomoak eta arduratsuak.</b> "Nik ahal dut!" esaldiak esanahi eta eduki berbera izan dezala nesken zein mutilen kasuan. Genero ereduak eta estereotipoak gaindituz, autonomia maila bera adierazi dezala bizitzaren esparru guztietan.</p>	<p><b>3. Autonomia arlo guztietan.</b> Fitxak eskaintzen dituen autonomiarako 12 jardueretatik, zenbat garatu dituzte gehienek? Zeintzuk? Zeintzuk ez? Aldea dago nesken eta mutilen artean? Zein jarduera edo ikasketetan? Zergatik? Zer arrazoi ematen dituzte horietako jarduera batzuk ez garatzeko? Neskentzat edo mutilentzat direla?</p>	<p>→ <b>Taldean aritzeko autonomia.</b> Besteekin bizitzeko autonomia. Besteen autonomia errespetatuz. Besteen trebetasunak, ekarpenak, proposamenak, beharrak eta nahiak kontuan hartuz.</p> <p>→ <b>Nik ahal dut. Guk ahal dugu.</b> Neska zein mutil, emakume nahiz gizon, autonomia pertsonala guztiontzat.</p>

→ Neskek zein mutilek, genero ereduak eta rolak gaindituz, bizitzaren esparru guztietan autonomoak eta arduratsuak izateko aukera eta baliabide berberak.